

GURE LURRA TA GU LURTARROK (VI): EDESTI IDATZIGABEA (ARRI ZAR)

Orain berrogei urte Bizkaia zelakoa zan esatea erreza da baiña ez ain erreza orain 40.000 urte zelakoa zan esatea. Ez dago idazkirik, ez dago lekukorik... ez dago besterik bizilekuak eta illobiak baiño.

Emen edesten doguzan aldietan ez egoan Bizkai'rik, euskaldun-taldearen barruan dago Bizkaia. Bizkaia oraintsuko gauzea da, zarragoa Euskalerrria, askoz zarragoa gizadi osoa. Edesti-aurrean ba, ez dago Bizkai'rik. Talde batzuk dagoz euren bizilekuakaz eta illobiakaz, euren eiza-erakaz eta euren sukaldaritzagaz. Ez dira emen agertzen Bizkaia'k bere-bereak dauzan bereiztasun oneik: bardintasuna, jakintzari jarraituazotea eta batez be iñori erasorik ez egitea arerioei be laguntzen dautsela, ez da agertzen gurasoengan seme-alabakanako maitasuna edo anaien arteakoa, norberaren eta besteen bizia aintzat artzea, gorrotoa ta zikoizkeria alboratzea.

Edesti-aurrea aztertukeran lenengo aldi bat gizaldi onen asierakoa da: Astarrenak ugari aurkitzen ziran, basoan ebiltzanak eurak be bai, esaterako Rotaetxe izan lenengo dolmena Gorbea'n aurkitu ebana, Jagor Balzola'n lenengo azterketa egin ebana eta Bengoetxea Santimamiñe'n lenengo marrazkiak aurkitu ebazana.

Bigarren aldia billatzaille-taldea sortu zanetik asten da, Aranzadi'tar Telesforo buru zala, gero Barandiaran'dar Joxemiel eta Enrike Eguren. 1918n. urtean asi ziran talde batekoak aurkitze oneik egokiro begiratzen eta triku-arri edo dolmen askoren barriak artu ebezan, leiza batzurena be bai. Orrean artean Oiz, Gorbea, Kalamua tokiak eta Lumentza, Bolinkoba eta Venta Lapearra'ko leizak.

Jakingarri guzti oneik aztertu ondoren lanerako aurre-eritxi bi agertu ziran Euskalerrriari begira: Euskaldunen enda bat ba-dagoala eta euskaldunak berton jaioak dirala, ez iñondik etorriak.

Gudeak baztertuta itzi ebazan lan bizi oneik eta gel-ditu egin ziran arik eta 1953n. urtean Barandiaran erbes-tetik biurtu arte.

Arrezkero lan asko ta aundiak egin dira, baiña oraindiño ez dago dana eginda. Asko be asko dago egiteko.

Edestiak bere aldiak dauz, pentsakera aldatu danean edo jazokizun aundiren bat sortu danean asita. Antzera

jazoten da edesti-aurrean be. Aldi bakoitxak bere izena daroa.

Gizona leiza edo koba baten millak urte askotan bizi izan ba'da, bota dauzan ondakiñak alkarren gainean dagoz, zarrenak azpian, oraintsukoak gainean. Bakoitxa zein lekutakoa dan argi ba'dago, ortik aterako dogu aldi bakoitzean zer jaten eban, zelako piztiak bizi ziran eta inguru aretan egozan landarak, zentzuk ziran.

Kristo'ren aurretik 50.000 urte dira gizona Bizkaia'n bizi dala. Orduan, gizona ona etorri egin zan beste leku batetik.

Edesti-aurreko aldirik zarrena musterientse deritxona da. Dima'ko Balzola'n dagoz aldi aretako lekukoak eta Sopelana'ko Kurtzia'n be bai. Emen sukarritzko lanabesak dagoz. Aldi onetan emen Neandertal gizona bizi ei zan: dantzaria, apaindua, bizi laburrekoa, unoretsua. Enda au galdu egin zan.

Arri-Zar goienean, aldakuntza andiak etorri ziran eta gaurko gizonen jatorria dan gizakia agertu zan emen, azurrak lantzen, sukarria lanerako egokitzen eta arpean margotzen. Aldi onen barruan auriñaziense dogu lenengo alditxua eta emen ez da agertzen Bizkaia'n giza ondakiñik, eskulanak Santimamiñe'en eta Bentalapearra'n. Azkenengo onetan bisonteak eta artzak dagoz margoztuta, baita orman marra batzuk be. Egutegiak ete diran edo eizarako zerbait. Ez da au Bizkai'ko bereizia, onetan Europa osoagaz batera gatoz.

Solutrense aldi (18 mila urte Kristo'ren aurretik) aldakuntza batzuk agiri dira: urriñetik eizatzea esaterako. Aldi onetan asko ugari ziran emengo biztanleak leizak ugariago agertzen dira-ta.

Magdalenense aldi esku-lan asko geiago agertzen da (15.000 urte Kristo'ren aurretik) eta Bizkai guztian zabaldua dago gizona. Emen asten da aitzeko margolari-lana. Arrantzarako arpoiak darabillez.

Aldi onen azkenarantza agertzen da Bizkaia'n gizon euskalduna, Cromagnon gizonari jarraituz.

Gero, otzaldia amatu zanean, gizonak bere bizikerea be aldau egin bear izan eban. Erdi-arri deritxon sasoi oneri. Gizonak leizetatik urten egiten dau, naizta iñoz geroago be barruan agertu. Arri bari 'ra goaz.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK